

GETXO / Mundu osoko egunkariak irakur daitezke Areetako liburutegian

Areetako udal liburutegiak bat egin du Munduko Egunkariak izeneko ekimenarekin, irakurzaletasuna bultzatzeko Eusko Jaurlaritzak antolatutako Liburutegiak Topaleku kanpainaren barruan. Hain zuzen ere, abenduak 18ko Etorkinen Eguna baliatu zuen Imanol Landa alkateak berau aurkezteko. Gauzak horrela, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako beste bost udalerritan bezala, Areetako liburutegian, atzerriko zenbait egunkari inprimatuko dira, 200 egunkariko datu-basetik aukeratuak, Getxoko etorkinen profila kontuan izanik. Asteko egun guztietan herrialde desberdinetako egunkari batzuk egongo dira ikusgai, tamaina errealean; tartean, Kolonbiako 'El Colombiano', Alemaniako 'Handelsblatt', Filipinar Irletako 'Sunday Times', Bolibiako 'Los tiempos', Frantziako 'Le monde', Txinako 'Tianjin Ribao', Peruko 'El comercio/La republica', Marokoko 'Aujourd'hui Le Maroc' eta Libanoko 'Al Nahar'. Bestalde, aipatu egunean, Eusko Jaurlaritzak banatutako saria eman zion Landa alkateak Olatz Izagirre San Nikolas ikastolako ikasleari. Jaurlaritzak EAEn 12 eta 15 urteko gazteentzat deitutako literatur lehiaketako irabazlea izan da euskarazko bakarkako modalitatean. Sari moduan Ipod bat jaso du. Argazkian, Landa eta Izagirre gaztea.

'Liburutegiek kulturak integratzeko duten eginkizunerako gune gisa sustatzea du helburu Munduko Liburuak ekimenak, beti ere hainbat balio bultzatuz; hala nola berdintasuna, tolerantzia eta aniztasuna', azaldu zuen Imanol Landa Getxoko alkateak. Proiektuak herritar guzti-guztien interes berriei eta zabalagoei eman nahi die erantzuna. 'Beste herrialde eta kontinente batzuetan jaiotako herritarrek jatorrizko herrialdeekin zuzeneko harremanak izateko balio dezake proiektuak. Eta ez gara soilik gure hirietara lan egitera datozen etorkinez ari, baizik eta gurean aldi batez bizi diren elkartrukeko ikasle gazteez ere bai. Eta tokiko eremu batean bizi arren gero eta komunikatuago dagoen mundu bategatik interesa duten guzti-guztiak zabalik hartu ahal izateko euskarria ere izan daiteke, edo mundu osoko beste hizkuntza batzuk praktikatu edo ikasi nahi dutenentzat beste barik', azaldu zuen Landak.